

JOB & GUIDANCE

Gure proiektua “Job & Guidance” deitzen da. Zerbitzu bat da, non gazteei laguntza eskaintzen zaien etorkizunean zein lanetan jardun nahi duten jakiteko.

Zerbitzu honetan, bezeroak hainbat enplegu desberdin frogatu ahal izango dituzte, denbora tarte txiki batean, demagun aste batez. Enplegu bakoitzean bezeroari aholkulari bat egokituko zaio lanaren oinarrizko gauzak azaltzeko eta laguntzeko. Hau guztia web orrialde eta aplikazio batetik kudeatuko da. Hasieran, kanal horietatik bezeroek eskaria egingo dute frogatu nahi duten lanetan eta parte hartu ondoren, bezeroak esan ahalko du ea gustatu zaion edo antzeko beste lanak frogatu nahi dituen edo oso desberdinak diren lanpostuak edota ikasgaiak nahi izango dituen. Galdetegi bat egingo da hasieran bere gustoko gaien arabera aukerak eta adibideak emateko. Zerbitzua amaituko da bezeroak erabakitzen duen edo jardun nahi duen lana aurkitzen duenean.

